

Bestelako Xedapenak

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

Zk-1469

EBAZPENA, 2000ko otsailaren 29koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariarena, 2000ko jardunaldian elkartegintza sustatzeko eta emakumeek Euskal Autonomia Erkidegoko esparru guztietan duten parte hartzea bultzatzeko dirulaguntzak arautzen dituen.

Emakumearen Euskal Erakundearen funtsezko helburua, Emakunde eratzeke otsailaren 5eko 2/1988 Legearen 2. artikuluan ezarritakoaren arabera, gizonaren eta emakumearen arteko berdintasun benetakoa eta eraginkorra lortzea da Euskal Herriko bizitza politikoa, ekonomikoa eta gizartean, maila eta esparru guztietan; Erakundearen helburuak dira, beraz, sexuen arteko berdintasuna bideratzeko baldintzak sustatzea; berdintasun hori, izatez eta zuzenbidez, bere osotasunean garatzeko dauden oztopoak aztertzea; eta emakumea baztertzeko edozein modu desagertaraztea Euskadin.

Zentzu honetan, Emakumearen Euskal Erakundeak, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Emakumeentzat Ekintza Positiborako III. Plana landu zuen: Herri-politikan generoa ze ikuspegitik landu (EEEEPP). Eusko Jaurlaritzak 1999ko abenduaren 21ean onartu zuen. Plan horrek hamar arlo ditu, elkarri lotuak. Honako proposamenak hartzen ditu barne: alde batetik, administrazioari beharrezkoak dituen ahalmenak esleitzea, bai politikoak bai teknikoak, administrazio horrek generoa aintzat hartuko duten politikak egin, betearazi eta balora ditzan. Bestetik, emakumeak eta emakume-elkarteak sendotzera bideratutako egitasmoak aurrera ateratzea, baita emakumeak gizartean eskuhartzera nahiz politikan aktiboki partehartzera bultzatuko dituzten egitasmoak aurrera ateratzea ere. Halaber, jokaeraredu jakin batzuk sustatzea, hala pertsonalak nola talde girokoak.

Helburu horiek bete ahal izateko, gizartean aldaketa izugarriak gertatu behar dira, eta aldaketa horiek Administrazioaren eskuhartze soilarekin lortzea oso zaila da. Beraz, emakumeen artean asoziazionismoa sustatzea eta bultzatzea oso garrantzitsua da, izan ere, emakumeen elkarrekin eta emakumeen egoera hobetzea helburutzat duten Erakundeak dira, hain zuzen, euren jarduerekin, emakumeek euskal gizartean duten partehartzean eta emakumeen egoera hobetzean zuzenean eragin dezaketena; gainera, horrela, Emakundek berak programatutako ekintzentzat ezinbesteko lan osagarria egitea lortzen da, hartara, Erakundearen funtsezko hel-

Otras Disposiciones

PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

Nº-1469

RESOLUCIÓN de 29 de febrero de 2000, de la Directora del Instituto Vasco de la Mujer / Emakumearen Euskal Erakundea, Emakunde, por la que se regula la concesión de subvenciones, durante el ejercicio 2000, para fomentar el Asociacionismo y potenciar la participación de las mujeres en todos los ámbitos de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

El fin esencial del Instituto Vasco de la Mujer / Emakumearen Euskal Erakundea, de conformidad a lo dispuesto en el artículo 2 de la Ley 2/1988, de 5 de febrero, de creación del Instituto, es la consecución de la igualdad real y efectiva entre mujeres y hombres en todos los ámbitos de la vida política, económica y social del País Vasco, fijándose como objetivo del mismo, la promoción de las condiciones que faciliten la igualdad entre los sexos y la remoción de los obstáculos que impidan su plenitud de hecho y de derecho, y la eliminación de todas las formas de discriminación hacia las mujeres en Euskadi.

En este sentido, el Instituto Vasco de la Mujer / Emakumearen Euskal Erakundea elaboró, con una significativa participación social, el «III Plan de Acción Positiva para las Mujeres en la Comunidad Autónoma de Euskadi. Enfoque de género en las Políticas Públicas» (III PAPME) que fue aprobado por el Gobierno Vasco el 21 de diciembre de 1999. Dicho Plan, estructurado en diez áreas de intervención, relacionadas entre sí recoge en su conjunto propuestas orientadas, por un lado, a construir la capacitación política y técnica de la administración para el diseño, ejecución y evaluación de políticas sensibles al género y, por otro, a establecer estrategias dirigidas al fortalecimiento de las mujeres y sus agrupaciones, al incremento de la participación social y política activa y responsable de las mismas, y a la puesta en práctica de unos modelos de comportamiento personales y colectivos.

La consecución de dichos objetivos requiere unos cambios sociales de tal envergadura que difícilmente se van a poder producir por la mera intervención de la Administración. Así pues, se hace necesario el fomentar y favorecer el asociacionismo entre las mujeres ya que, precisamente, son las asociaciones de mujeres y las Fundaciones que tienen por objeto la promoción de las mismas las que con sus actividades pueden incidir de forma directa en la participación y promoción de las mujeres en la sociedad vasca, efectuándose con ello una indispensable labor de complemento con las actuaciones programadas por el propio Instituto, en aras de alcan-

burua betetzeko beharrezkoa den gizarte-sentsibilizazioa lortzeko.

Beraz, EEEPP III. honek sustatu beharreko helburuen artean finkatzen du emakumeak ekimen aktiborako antola daitezela (2.1.1 helburua); horretarako, ekintza positiborako neurri bezala (2.1.1.2.) emakumeen Elkarateak, dirulaguntzen bidez sustatzea dugu, emakumeen egoera hobetzeko jarduerak antola ditzaten.

Aipatu ekintza gauzatuz, 2000. urtean zehar, Emakumearen Euskal Erakundeak dirulaguntzak ematea aurreikusi du, aipatutako helburuen arabera ekintzak garatzea ahalbidetuko dutenak; dirulaguntzak emateko, dirulaguntzen deialdia arautu behar da, hiru irizpideen arabera: publizitatea, lehia eta objektibitatea.

Horren arabera, honako hau

EBATZI DUT:

1. Artikulua.— Xedea

Ebazpen honen xedea hau da: irabaz-asmorik gabeko emakumeen elkaratei, eta helburutzat eta jarduteko esparru bakartzat emakumeen egoera hobetzea duten Erakundeek Emakumearen Euskal Erakundeak emango dizkien dirulaguntzak arautzea, hartara, Elkar-te eta Erakunde horiek, 2000ko ekitaldian, Emakunderen xede eta helburuekin erlazionatutako proiektu zehatzak egin ditzaten; horretarako, ondoren azaltzen diren artikuluetan xedatutakoa errespetatu behar dute, Aurrekontuaren IV. Kapituluan esleitu diren kredituak zehazten dituzten mugen barruan. Helburu honetara 35.000.000 PTA (210.354,24 euro) zuzenduko dira.

Deialdi hau lehiaketaren prozedura jarraituz ebatziko da.

2. Artikulua.— Erakunde Onuradunak

1.— Ebazpen honetan arautzen diren dirulaguntzak eskatu ahal izango dituzte, beti ere, jarduteko esparrua Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan bada, alde batetik, otsailaren 12ko 3/1988 Legearen ezarpen-esparruaren barruan dauden irabaz-asmorik gabeko emakumeen elkaratek, eta bestetik, helburu bakartzat eta jarduteko esparru bakartzat emakumearen egoera hobetzea duten Erakundeek, beti ere, Euskal Herriko Fundazioei buruz ekainaren 17an onartutako 12/1994 Legearen ezarpen-esparruaren barruan badaude.

2.— Ez da onartuko, Emakunde emandako dirulaguntzaren bat justifikatu gabe duten erakundeek egingako eskaerarik, ezta izaera bereko dirulaguntzen edo laguntzen esparruan dirua itzultzeko prozedurarik edo prozedura zigortzailerik martxan duen edozein erakunderen dirulaguntza-eskaerarik ere.

3. Artikulua.— Dirulaguntza jaso dezaketen jarduerak

zar la necesaria sensibilización social que posibilite el fin esencial de éste.

De este modo, el III PAPME establece entre sus objetivos el fomentar la organización proactiva de las mujeres (objetivo 2.1.1), contemplando como medida de acción positiva (2.1.1.2) incentivar, mediante subvenciones a las asociaciones de mujeres para la realización de actividades de promoción de las mismas.

En ejecución de dicha acción, durante 2000, el Instituto Vasco de la Mujer / Emakumearen Euskal Erakundeak prevé la concesión de subvenciones que posibiliten el desarrollo de las mismas en relación con los objetivos señalados, procediendo para ello a regular la convocatoria de subvenciones bajo los criterios de publicidad, concurrencia y objetividad.

En su virtud,

RESUELVO:

Artículo 1.— Objeto

Es objeto de la presente Resolución la regulación de las subvenciones a conceder por el Instituto Vasco de la Mujer / Emakumearen Euskal Erakundeak a asociaciones de mujeres sin ánimo de lucro y Fundaciones cuyo único fin y ámbito de actuación sea el de la promoción de las mujeres, para la realización de proyectos concretos relacionados con los fines y objetivos del Instituto en el ejercicio de 2000 en los términos señalados en los artículos siguientes y dentro de los límites que determinan los créditos consignados en el Capítulo IV de su Presupuesto. A este fin se destinará un total de 35.000.000 PTA (210.354, 24 Euros).

La presente convocatoria se resolverá por el procedimiento de concurso.

Artículo 2.— Entidades Beneficiarias

1.— Podrán solicitar las subvenciones reguladas por la presente Resolución, siempre que el ámbito de actuación de las mismas se circunscriba única y exclusivamente a la Comunidad Autónoma de Euskadi, las asociaciones de mujeres sin ánimo de lucro incluidas en el ámbito de aplicación de la Ley 3/1988, de 12 de febrero y las Fundaciones cuyo único fin y ámbito de actuación sea la promoción de las mujeres y estén incluidas en el ámbito de aplicación de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco.

2.— No serán admitidas solicitudes de subvención por parte de quien tenga pendiente de justificación alguna otra subvención económica concedida por el Instituto Vasco de la Mujer / Emakumearen Euskal Erakundeak o quien se halle en algún procedimiento de reintegro o sancionador iniciado en el marco de subvenciones o ayudas de la misma naturaleza.

Artículo 3.— Actividades subvencionables

EEEEPP III. honen esparruan, eta Emakunderen helburuekin bat etorritik, dirulaguntzak jasoko dituzten proiektuak edo jarduerak, 2000ko urtarrilaren 1 eta abenduaren 31 bitartean garatuko dira, honako programa mota hauek garatzera zuzenduta:

a) Jardueren bidez, emakumeek politikagintzan, ekonomian, gizartean zein kulturean, esparru eta maila guztietan partaidetza sustatzeko programak eratzea; programa horiek emakumeen asoziazionismoa sustatu behar dute, baita Euskal Autonomia Erkidegoan dagoen elkartzeko mugimendua koordinatu ere.

b) Hezkuntzan, kulturean, lanbide-prestakuntzan, osasun-arloan eta gizarte-zerbitzuetan Prestakuntza Programak antolatzea, sexuen artean aukera berak eta tratua bera lortzeko.

Eskulanen programak badira (eskulanak, artisautza, sukaldaritza, eta abar), dirulaguntza jaso ahal izateko, bestelako prestakuntzarako jarduerak edota emakumeen gizarte-egoerari buruzko informazioa emateko jarduerak osatu beharko dira.

c) Zuzenbidezko antolamenduak emakumeei aitortzen dizkien eskubideei buruz eta emakumeekin erlazioatutako gaien buruz material grafikoak zein audio-bisualak hedatzeko programak antolatzea.

4. Artikulua.- Eskaerak aurkeztea

1.- Eskaerak aurkezteko epea hogeita hamar egun naturalekoa izango da, Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzako Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

2.- Eskaerak Emakumearen Euskal Erakundearen egoitzan aurkeztu behar dira (Manuel Iradier kalea, 36, (01005) Vitoria-Gasteiz). Administrazio-jardunbideen araudian aurreikusitako beste bideetako bat ere erabili ahal izango da.

5. Artikulua.- Dokumentazioa

Eskaerak Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariari bidaliko zaizkio, eta ondoren adierazten den dokumentazioa aurkeztu beharko da:

A) Eskaera guztietan, orokorrean:

a) Eskaera egin duen erakundeari buruzko datuak (I. Eranskina).

b) Estatutuen fotokopia edo eratze-eskritura

c) Bazkide emakumezkoen kopurua, bazkide emakumezkoen liburuaren fotokopiaren bidez egiaztatua, hala behar izanez gero.

d) Eskaera egin duen Erakundeko legezko ordezkariaren, pertsona fisikoaren NANaren fotokopia.

e) 2000ko abenduaren 31 baino lehen egingo diren jardueren programa. Dirulaguntza eskatzen deneko jarduera bakoitzerako, II. Eranskina osorik bete behar da.

f) Eskaera sinatzen duen pertsonaren zinpeko aitortpena, non berariaz adieraziko den helburu berarekin

En el marco del III PAPME y en consonancia con los fines del Instituto, los proyectos o actividades a subvencionar que se desarrollarán entre el 1 de enero y el 31 de diciembre de 2000 deberán ir dirigidos a la realización de:

a) Programas para potenciar, mediante la realización de actividades, la participación de las mujeres en todos los ámbitos de la vida política, económica, social y cultural, fomentando el asociacionismo de éstas, así como la coordinación del movimiento asociativo existente en la Comunidad Autónoma de Euskadi.

b) Programas formativos en materia de educación, cultura, formación-empleo, salud y servicios sociales que impulsen la igualdad de oportunidades y trato entre los sexos.

Los programas de manualidades, (trabajos manuales, artesanía, cocina, etc.) para ser susceptibles de ser subvencionados deberán ser complementados con otras actividades de formación y/o información sobre la situación social de las mujeres.

c) Programas de difusión de los derechos que el ordenamiento jurídico reconoce a las mujeres y de materiales gráficos o audiovisuales, de temas relacionados con éstas.

Artículo 4.- Presentación de solicitudes

1.- El plazo de presentación de solicitudes será de treinta días naturales, a contar desde el día siguiente al de la fecha de publicación de la presente Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco.

2.- Las solicitudes se presentarán en la sede del Instituto Vasco de la Mujer / Emakumearen Euskal Erakundea, C/ Manuel Iradier, 36, (01005) Vitoria-Gasteiz, o por cualquiera de los medios previstos en la normativa de procedimiento administrativo.

Artículo 5.- Documentación

Las solicitudes se dirigirán a la Directora del Instituto Vasco de la Mujer / Emakumearen Euskal Erakundea, acompañadas de la siguiente documentación:

A) Con carácter general para todas las solicitudes:

a) Datos relativos a la entidad solicitante. (Anexo I).

b) Fotocopia de los estatutos o escritura fundacional.

c) Número de socias acreditado, en su caso, a través de la fotocopia del Libro de Socias.

d) Fotocopia del DNI de la persona física, representante legal de la Entidad solicitante.

e) Programa de actividades a realizar antes del 31 de diciembre de 2000. Por cada una de las actividades por las que se solicite la subvención será necesario cumplimentar, en su totalidad, el Anexo II.

f) Declaración jurada de la persona firmante de la solicitud, señalando expresamente si se ha solicitado al-

beste dirulaguntzarik eskatu ote den, eta hala badagokio, eskaera zuzendu deneko Erakundea eta eskaeraren egoera.

g) Zerga-betebeharrak egunean dituela ziurtatzen duen Ogasuneko Ziurtagiria.

B) 1999. urtean, dirulaguntzarik jaso ez dutenentzat:

a) Bakoitzari dagokionaren arabera, Elkarteen edo Fundazioen Erregistroan izen emanda dagoela erakusteko Ziurtagiria.

b) Identifikazio Fiskaleko Txartelaren fotokopia.

c) «Datuen Alta / Hirugarren Interesduna» inprimakia, Erakunde honetan emango dena.

6. Artikulua.— Aurkeztutako eskaeran akatsak zuzentzea

Dirulaguntza lortzeko eskaerak behar bezala beteta egongo ez balira, edo 5. artikuluan adierazitako dokumentazioa aurkeztuko ez balute, Erakundeak falta den dokumentazioa aurkez dezala eskatuko lioke interesdun emakumezkoari, edo aurkitutako akatsa zuzentzea, horretarako 10 egun naturaleko epea emanez, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik hasita; jakinarazpenean adieraziko da, falta den dokumentazioa aurkezten ez bada, edo akatsak zuzentzen ez badira, eskaerari uko egin zaiola, hala ezartzen baita 30/1992ko azaroaren 26ko legearen —Herri-Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Prozedura Erkidearena— 42. artikuluan, 4/1999ko urtarrilaren 13ko legean agindutakoarekin bat etorritz.

7. Artikulua.— Aukeraketa Batzordea

Aurkezten diren eskaerak aztertzeko eta ebaluatzeko, Aukeraketa Batzorde bat eratuko da, partaideak honako hauek izanik:

Lehendakaria: — Idazkari Nagusia.
Batzordekideak: — Lege Aholkularitzako arduraduna
— Administrazio eta Finantza Zerbitzuko arduraduna.
— Elkarteen eta Informazioaren arduraduna.

Idazkaria: — Lege Aholkularitzako arduraduna izango da.

8. Artikulua.— Dirulaguntzak esleitzeko irizpideak

Dirulaguntza esleitzeko eta kuantifikatzeko irizpide modura, Aukeraketa Batzordeak honako osagai eta puntuazio hauek hartuko ditu kontuan:

a) Programa edo jarduera zein lurralde-esparrutan garatuko den, eta zenbat biztanlerengan izango duen eragina. 30 puntu arte.

b) Programak gizarte-mailan duen eragina; eta, adierazle zehatzak erabilita, programaren bideragarritasuna ebaluatzeko aukerarik ba ote dagoen ala ez. 30 puntu arte.

guna otra subvención para la misma finalidad y, en su caso, Organismo al que se ha dirigido y la situación de la misma.

g) Certificado de Hacienda de estar al corriente de las obligaciones tributarias.

B) Para quienes no hubieran recibido subvención en 1999:

a) Certificación de la inscripción en el Registro de Asociaciones o Fundaciones, según corresponda.

b) Fotocopia de la Tarjeta de Identificación Fiscal.

c) Impreso de «Alta de Datos / Tercero Interesado» que se facilitará en este Instituto.

Artículo 6.— Subsanación de defectos en la solicitud presentada

Si las solicitudes de subvención no vinieran cumplimentadas en todos sus términos, o no fueran acompañadas de la documentación señalada en el artículo 5, el Instituto requerirá a la interesada la presentación de la documentación omitida o la subsanación del defecto observado concediendo, a estos efectos, un plazo de diez días naturales a contar desde el día siguiente al de su notificación con indicación de que, si así no lo hiciera, se tendrá por desistida de su petición previa resolución dictada en los términos previstos en el artículo 42 de la ley 30/1992, de 26 de noviembre de régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y el procedimiento administrativo Común, por mor de la ley 4/1999, de 13 de enero.

Artículo 7.— Comisión de selección

Para el análisis y evaluación de las solicitudes presentadas se constituirá una Comisión de selección compuesta por:

Presidenta: — Secretaria General.
Vocales: — Responsable de la Asesoría Jurídica
— Responsable del Servicio Administrativo-Financiero.
— Responsable de Asociaciones e Información

Secretaria/o:—Actuará como tal la persona responsable de la Asesoría Jurídica.

Artículo 8.— Criterios de adjudicación de las subvenciones

Como criterios para la concesión y cuantificación de las subvenciones, la Comisión de selección tendrá en cuenta, atendiendo a la puntuación asignada a cada uno de ellos, los siguientes:

a) El ámbito territorial de desarrollo del programa o actividad y la población afectada. Hasta 30 puntos.

b) El alcance social del programa y la posibilidad de evaluar con indicadores concretos la viabilidad del mismo. Hasta 30 puntos.

c) Programen elementu berritzaileak. 10 puntu arte.

d) Etxeko eta familiarteko esparruan, gizonen erantzukizun berdina dutela sustatzera bideratutako sentsibilizazio-jarduerak egitea. 10 puntu arte.

e) Koordinatzen diren emakumeen elkarte-kopurua, baita proiektuaren tamaina ere. 10 puntu arte.

f) Euskararen erabilera. 10 puntu arte.

9. Artikulua.— Dirulaguntzen zenbatekoa

1.— Dirulaguntza bakoitzak izango duen zenbatekoa, Aukeraketa Batzordeak proposatutakoaren arabera, 8. artikuluan ezarritako esleipen-irizpideen arabera emandako puntuazioa oinarritzat hartuz zehaztuko da.

2.— Dirulaguntzaren gehienezko zenbatekoak, erakunde onuradun bakoitzeko, ezin izango du 1.000.000 PTA gainditu (6.010,12 euro).

10. Artikulua.— Beste dirulaguntza edo laguntza batzuekin bateragarritasuna

Deialdi honetan aurreikusi diren dirulaguntzak, beste edozein erakunde publikok edo pribatuk, helburu berearekin eman ditzakeen beste dirulaguntzekin bateragarri dira, baldin eta gainfinantzaketarik gertatzen ez bada. Gainfinantzaketarik izanez gero, dirulaguntza murriztu egingo da, dagokion gehienezko mugaraino.

11. Artikulua.— Ebazpena

1.— Aukeraketa Batzordeak eskaerak ebaluatuko ditu, esleipen-irizpideen arabera, eta ondoren, bere proposamena Erakunde honetako zuzendariari bidaliko dio. Zuzendariak emango du berarizko eta banakako ebazpena, dagokion dirulaguntza esleituz. Dirulaguntzak onartzen ala ukatzen dituzten Ebazpenak eskabidea aurkeztu duten Erakundeei jakinaraziko zaizkie. Aldi berean, esleitutako dirulaguntzen zerrendari dagokion Ebazpena, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

2.— Ebazpen honen babesean egindako eskaerei buruzko erabakia hartzeko eta jakinarazteko gehienezko epea sei hilabetekoa izango da, ebazpen hau indarrean sartzen denetik zenbatzen hasita. Epe hori pasa ondoren, Erakunde interesdunak ez badu Erabakiaren jakinarazpenik izan, egindako dirulaguntza-eskaera atzera botatzeko modukoa dela ulertuko da, Herri-Administrazioen Araubideari eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44.1 artikuluan ezarritakoa betez. Lege hori urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak eraldatu zuen.

12. Artikulua.— Erakunde onuradunen betebeharrak

Ebazpen honetan arautzen diren dirulaguntzen Erakunde onuradunek, edozein kasutan, honako betebeharrak bete beharko dituzte:

c) Los elementos innovadores de los programas. Hasta 10 puntos.

d) La realización de actividades de sensibilización orientadas a fomentar la corresponsabilidad de los hombres en el ámbito doméstico y familiar. Hasta 10 puntos.

e) El número de asociaciones de mujeres que se coordinen, así como la amplitud del proyecto. Hasta 10 puntos.

f) La utilización del euskera. Hasta 10 puntos.

Artículo 9.— Cuantía de las subvenciones

1.— La cuantía individualizada de la subvención se determinará en base a la puntuación asignada en función de los criterios de adjudicación establecidos en el art. 8, a propuesta de la Comisión de selección.

2.— La cuantía máxima de subvención, por entidad beneficiaria, no podrá exceder de 1.000.000 PTA (6.010, 12 Euros).

Artículo 10.— Compatibilidad con otras subvenciones o ayudas

Las subvenciones previstas en la presente convocatoria son compatibles con aquellas otras que, teniendo el mismo fin, pudieran ser otorgadas por cualquiera otra institución pública o privada, siempre que de ello no se derive sobrefinanciación. Caso de producirse ésta se reducirá el importe de la subvención hasta el límite máximo que corresponda.

Artículo 11.— Resolución

1.— Las solicitudes serán evaluadas en base a los criterios de adjudicación por la Comisión de selección, que elevará su propuesta a la Directora del Instituto. Ésta dictará Resolución expresa e individualizada adjudicando la correspondiente subvención. La Resolución de concesión o denegación de las subvenciones será notificada a las Entidades solicitantes. Asimismo, la Resolución correspondiente a la relación de las subvenciones concedidas será publicada en el Boletín Oficial del País Vasco.

2.— El plazo máximo para resolver y notificar las solicitudes formuladas al amparo de la presente Resolución será de seis meses desde la entrada en vigor de la presente Resolución. Si transcurrido este plazo no hubiera sido notificada a la Entidad interesada Resolución alguna podrá entenderse desestimada la petición de subvención, de conformidad con lo establecido en el art. 44.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, modificada por la Ley 4/1999, de 13 de enero.

Artículo 12.— Obligaciones de las Entidades beneficiarias

Las Entidades beneficiarias de las subvenciones reguladas en la presente Resolución deberán cumplir, en todo caso, las siguientes obligaciones:

a) Emandako dirulaguntza onartzea. Zentzu honetan, dirulaguntzaren emateko jakinarazpena jasotzen den egunetik hasita, hamabost eguneko epean, Erakunde onuradunek dirulaguntzari berariaz eta idatziz uko egiten ez badiote, dirulaguntza onartu dutela ulertuko da.

b) Dirulaguntza, eman deneko xede zehatzerako erabiltzea, 14. artikuluan xedatutakoa ezartzen den kasuetan izan ezik, eta une oro, garatu behar diren eta dirulaguntza jaso duten jarduerak Emakundek baieztatzea onartzea.

c) Kontrol Ekonomikorako Bulegoari eta Kontu Publikoen Euskal Auzitegiari, deialdi honen kontura jasotako dirulaguntzei dagokienez, betetzen dituen funtzioei buruz eskatzen den informazioa ematea.

d) Idatziz jakinarazi beharko da, dirulaguntza jaso duten jarduerak aldatu edo moldatu nahi badira, eta aldatetak egin ahal izateko Emakundeko Zuzendaritzak espreski onartu behar du eskaera.

e) Dirulaguntza jaso duten jarduerari buruzko publizitate orotan, Emakumearen Euskal Erakundearen laguntza jaso duela azaldu behar du (III. Eranskinaren arabera).

13. Artikulua.– Dirulaguntzaren ordainketa

1.– Dirulaguntza zatika ordainduko da: dirulaguntzaren ehuneko hirurogeita hamabost, laguntza emateko Ebazpena argitaratzen den unean ordainduko da, eta gainontzekoa, ehuneko hogeita bost, dirulaguntza jaso duten jarduera guztiek sortutako gastuak justifikatu ondoren; horretarako, 2001eko otsailaren 28a baino lehen honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

– Jasotako diru publikoak izandako erabilera justifikatzeko txostena. Aipatu txostenean, egindako jarduerak eta lortutako helburuak deskribatuko dira, proiektuan aurreikusitako egutegiaren arabera (IV. Eranskinna).

– Dirulaguntza jaso duen jardueraren balantze ekonomikoa aurkeztuko da.

– Dirulaguntza jaso duten jarduerari dagokienez, izandako gastuaren fakturak edo ziurtagiri originalak. Fakturen edo agirien gastuaren datak ezin du 2000ko abenduaren 31 baino beranduagokoa izan.

– Dirulaguntza jaso duten jarduerari buruz egiten den publizitatean, Emakumearen Euskal Erakundea aipatu dela erakusteko agiriak.

2.– Aurkeztu diren fakturen edo agirien zenbatekoak, guztira, ordaindutako dirulaguntza osoa hartzen ez badu, jakinarazi egin beharko da, dirua Euskal Herriko Diruzaintza Nagusira itzultzeko.

14. Artikulua.– Dirulaguntzaren baldintzak aldatzea

a) Aceptar la subvención concedida. En este sentido, si en el plazo de quince días tras la fecha de recepción de la comunicación por la que se notifica la concesión de la subvención las Entidades beneficiarias no renuncian expresamente y por escrito a la misma, se entenderá que ésta queda aceptada.

b) Utilizar la subvención para el concreto destino para el que ha sido concedida, salvo que resulte de aplicación lo establecido en el art. 14 y admitir en todo momento, la verificación por parte del Instituto de las actividades subvencionadas a desarrollar.

c) Facilitar a la Oficina de Control Económico y al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas la información que le sea requerida en el ejercicio de sus funciones respecto de las subvenciones recibidas con cargo a esta convocatoria.

d) Comunicar, por escrito, cualquier variación o modificación que pretendan efectuar en las actividades subvencionadas, requiriéndose la expresa aprobación de la Dirección del Instituto para su realización.

e) Hacer constar, en cuanta publicidad se efectúe de las actividades subvencionadas, la colaboración del Instituto Vasco de la Mujer / Emakumearen Euskal Erakundea (según Anexo III).

Artículo 13.– Pago de la subvención

1.– El pago de la subvención será fraccionado, abonándose el setenta y cinco por ciento de la misma en el momento en que se dicte la Resolución de concesión, y el resto, el veinticinco por ciento, una vez justificados todos los gastos generados por las actividades subvencionadas, mediante la presentación, por duplicado, antes del 28 de febrero de 2001 de la documentación siguiente:

– Memoria justificativa de la aplicación dada a los fondos públicos percibidos. En dicha memoria se describirán las actividades realizadas y los objetivos conseguidos, de acuerdo con el calendario previsto en el proyecto (Anexo IV).

– Balance económico de la actividad o actividades subvencionadas.

– Facturas o documentos originales acreditativos del gasto realizado en relación a las actividades subvencionadas. La fecha del gasto de las facturas o documentos al efecto, no podrá exceder del 31 de diciembre de 2000.

– Documentos justificativos de que se ha hecho constar, en cuanta publicidad se efectúe de las actividades subvencionadas, la colaboración del Instituto Vasco de la Mujer / Emakumearen Euskal Erakundea.

2.– En el supuesto de que el importe total de las facturas o documentos presentados no cubriera el importe de la subvención abonada, deberá señalarse dicha circunstancia a los efectos de su reintegro a la Tesorería General del País Vasco.

Artículo 14.– Alteración de las condiciones de la subvención

1.– Dirulaguntzaren helburua bete arren, laguntza emateko orduan kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira, eta hala badagokio, beste edozein erakunde publikok edo pribatuk emandako dirulaguntzak edo laguntzak aldi berean lortzen badira, ondorioz, dirulaguntzak emateko Ebazpena aldatzea gerta daiteke.

2.– Aurreko artikuluan aipatutako dokumentazioa jaso ondoren, eta dokumentazioa aztertu eta ebaluatu ondoren, Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria, administrazio-bidea amaitutzat emango duen Ebazpen baten bidez, emandako dirulaguntza likidatzen hasiko da; likidazioan, emandako dirulaguntzen zenbatekoak egokituko dira, eta hala badagokio, egin beharreko itzulketaren zenbatekoa adieraziko da, eta itzulketaren egiteko 15 egun naturaleko epea emango da.

15. Artikulua.– Ez betetzeak

Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzak bete ez direla baieztatzen bada, jasotako zenbatekoak eta zenbateko horri legez dagozkion interesak Euskal Herriko Diruzaintza Nagusira itzuli beharko dira, eta, horrez gainera, bestelako neurriak ere hartu ahal izango dira. Hori dena, azaroaren 11ko 1/1997 legegintza Dekretuan eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritakoaren arabera.

16. Artikulua.– Itzulketa egiteko prozedura

Emandako dirulaguntza itzultzeko prozedura, ezarritako baldintzak edota betebeharrak betetzen ez bada, abenduaren 17ko 689/1991 Dekretuan xedatutakoari lotuko zaio; Dekretu honek zera ezartzen du:

a) Emakumearen Euskal Erakundeko Zuzendariak jakinaraziko dio Erakunde interesdunari, prozeduraren hasiera eta oinarritzen deneko arrazoiak, Erakundeak egokitzen jotzen dituen alegazioak egiteko 15 egun baldioduneko epea emanez.

b) Alegazioak jaso edo alegazioak egin gabe epe bat pasa ondoren, prozedura amaitutzat joko da, Emakumearen Euskal Erakundeko Zuzendariaren Ebazpenaren bidez. Aipatu Ebazpenak administrazio-bidea amaitutzat joko du.

Betebeharrak bete gabe geratu direla ezarritako Ebazpenean, dirulaguntza jasotzeko eskubidea galdu dela aitortuko da, eta hala badagokio, Euskal Herriko Diruzaintza Nagusira jadanik jasotako zenbatekoak eta legez ezarri behar zaizkion interesak itzuli beharko dira; itzulketa egiteko, gehienez bi hilabeteko epea izango da, jakinarazpena egiten den egunetik hasita. Epe hori borondatezko epea izango da.

c) Borondatezko aldiaren itzulketarik egiten ez bada, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Herri Administrazio Saileko organo eskudunari jakinaraziko zaio, behartze-

1.– Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, siempre que se entienda cumplido el objeto de ésta y, en su caso, la obtención concurrente de otras subvenciones y ayudas concedidas por cualquier otra entidad pública o privada, podrá dar lugar a la modificación de la Resolución de concesión de las subvenciones.

2.– Recibida la documentación señalada en el artículo anterior, previo el análisis y evaluación de la misma, la Directora del Instituto Vasco de la Mujer / Emakumearen Euskal Erakundea procederá, mediante Resolución que pondrá fin a la vía administrativa, a efectuar la liquidación de la subvención concedida en la que se reajustarán los importes de las subvenciones concedidas, señalando, en su caso, la cuantía de la misma cuyo reintegro proceda y otorgando, a tal efecto, un plazo de 15 días naturales para efectuarlo.

Artículo 15.– Incumplimientos

La constatación de la existencia de cualquier supuesto de incumplimiento de las condiciones que motivaron la concesión de la subvención dará lugar, de conformidad y en los términos establecidos en el Decreto legislativo 1/1997, de 11 de noviembre y el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre, a la obligación de reintegrar a la Tesorería General del País Vasco las cantidades percibidas más los intereses legales que procedan, sin perjuicio de las demás acciones que procedan.

Artículo 16.– Procedimiento de reintegro

El procedimiento para la devolución de la subvención concedida, en el supuesto de incumplimiento de las condiciones y/u obligaciones establecidas, se ajustará a lo dispuesto en el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre, que establece lo siguiente:

a) La Directora del Instituto Vasco de la Mujer / Emakumearen Euskal Erakundea comunicará a la Entidad interesada la iniciación del procedimiento y las causas que lo fundamentan, concediendo un plazo de 15 días hábiles para que formule las alegaciones que estime oportunas.

b) Recibidas las alegaciones o transcurrido el plazo sin que se hubieran realizado, se pondrá fin al procedimiento por Resolución de la Directora del Instituto Vasco de la Mujer / Emakumearen Euskal Erakundea. Dicha Resolución pondrá fin a la vía administrativa.

Si la Resolución estimase la existencia de incumplimiento, declarará la pérdida del derecho a la percepción de la subvención y, en su caso, la obligación de reintegrar a la Tesorería General del País Vasco las cantidades ya percibidas más los intereses legales que resultaren de aplicación, en el plazo máximo de dos meses, a contar desde su notificación. Este plazo se considerará como período voluntario.

c) La falta de reintegro en el período voluntario será puesta en conocimiento del Organismo competente del Departamento de Hacienda y Administración Pública

bideari ekin ahal izateko, ezar daitezkeen legezko araudian xedatutakoaren arabera.

d) Ezar daitezkeen arauak ez betetzeagatik, emandako dirulaguntzak itzultzeko prozedura betetzeko eta jakinarazteko gehienezko epea, artikulua honetan arautzen dena, sei hilabetekoa izango da.

17. Artikulua.– Errekurtsoak

Administrazio bidea agortzen duen Ebazpen honen aurka honako errekurtso hauek jar daitezke: Ebazpena eman duen organo beraren aurrean birraztertze errekurtsoa jar daiteke Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hilabeteren buruan. Zuzenean jar daiteke administrazioarekiko auzi errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Justizi Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzi Epaitegiaren aurrean, bi hilabeteren buruan, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denetik zenbaten hasita.

XEDAPEN GEHIGARRIA

1. artikuluan esleitu den guztizko zenbatekoa alda daiteke, eskatutako laguntzen guztizko zenbatekoa kontuan hartuz, Emakumearen Euskal Erakundearen beste laguntza-programak gauzatzetik gastatu gabeko dirulaguntzak erabili daitezkeen kontuan hartuz, eta programa horiei buruzko erabakia hartu baino lehen.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honek eragina izango du, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2000ko otsailaren 29a

Zuzendaria,
TXARO ARTEAGA ANSA.

del Gobierno Vasco, a fin de que se proceda por la vía de apremio, según lo dispuesto en la normativa legal aplicable.

d) El plazo máximo para resolver y notificar el procedimiento para la resolución de las ayudas concedidas por incumplimiento de las normas aplicables, regulado en el presente artículo será de seis meses.

Artículo 17.– Recursos

Contra la presente Resolución que agota la vía administrativa, se podrá interponer potestativamente recurso de reposición ante el mismo órgano, en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco; o bien directamente recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses, a contar desde el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

DISPOSICION ADICIONAL

El importe global consignado en el Artículo 1 podrá ser modificado teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas, en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas que resulten de la ejecución de otros programas de ayudas del Instituto Vasco de la Mujer / Emakumearen Euskal Erakundea y con carácter previo a la resolución de las mismas.

DISPOSICION FINAL

La presente Resolución surtirá efectos desde el día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 29 de febrero de 2000.

La Directora,
TXARO ARTEAGA ANSA.

I. ERANSKINA

DATU OROKORRAK

ELKARTEAREN edo FUNDAZIOAREN DATU OROKORRAK		
Eskera egiten duen Erakundearen izena:		Bazkide Kopurua
Elkartearen Helbidea		
Herria	Lurraldea	Telefonoa / Faxe:
Elkarteen/Fundazioen Erregistroan izena ematea ZK.	Izen ematearen data:	IFK:

ELKARTEAREN edo FUNDAZIOAREN BANKUKO DATUAK ①
Banketxea:
Banku-sukurtsalaren helbidea:
Kontu-zenbakia:

① OHARRA: Derrigorrezkoa da Elkarte edo Fundazioa bankuko kontuko titularra izatea.

ELKARTEAREN edo FUNDAZIOAREN ORDEZKARITZA LEGALA	
Izena eta Deiturak:	
Helbidea eta Herria:	
Telefonoa:	NAN:

II. ERANSKINA

JARDUEREN PROIEKTUA
(jarduera bakoitzerako)

Jardueraren izena:

EEEPP III.ean jarduera identifikatzea

Arloa	Helburua	Ekintza
-------	----------	---------

Jardueraren programa:

Helburuak:

- 1.- _____
- 2.- _____
- 3.- _____
- 4.- _____
- 5.- _____

Metodologia:

Irizpideak / Ebaluaziorako adierazleak:

Jarduera zuzentzen deneko pertsonak: _____
Jardueran parte hartzeko aurreikusi den pertsona-kopurua: _____

Jardueraren lurralde-esparrua:

Bertokoa:

Lurralde Historikoa

Autonomia Erkidegoa

Jarduera garatuko deneko/direneko lekua/k: _____

Jardueraren egutegia: Ordu-kop.: _____ Lehen eguna: _____ Azken eguna : _____

Jarduera honako hizkuntza honetan egingo da:

Euskara

Gaztelera

Euskara/Gaztelera

Beste bat

JARDUERAREN AURREKONTUA

GASTUAK

Txostengileen / irakasleen gastuak:

Ordainsariak _____

Ostatua: _____

Garraioa: _____

Beste zenbait: _____

Materialaren gastuak:

Fotokopiak: _____

Material didaktikoak (liburuak, ikus-entzunezkoak.) _____

Materialen alokairua: _____

Beste zenbait material: _____

Publizitatea:

Diseinuak eta logotipoak: _____

Hormirudiak eta liburuskak: _____

Prentsako eta irratiko iragarkiak: _____

Beste zenbait: _____

Jarduerentzako lokalak alokatzea: _____

Azpiegituraren gastuak:

Posta: _____

Telefonoa eta faxa: _____

Beste zenbait: _____

Beste zenbait gastu: _____

GASTUAK GUZTIRA _____

SARRERAK:

Elkartearen / Fundazioaren ekarpena: _____

Beste zenbait Erakunderen ekarpena: _____

Partehartzaileen ekarpena: _____

Beste zenbait dirulaguntza: _____

JARDUERA HONETARAKO EMAKUNDERI ESKATZEN

DION DIRULAGUNTZA: _____

SARRERAK GUZTIRA _____

III. ERANSKINA

Emakunde /Emakumearen Euskal Erakundearen logotipoaren ezaugarriak
Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundearen logotipoa, programa hauetan, zabaldu behar den publizitate-euskarrian azalduko da, dirulaguntza jaso duen elkarte edo erakundearen kategoria berdinarekin, eta honako neurri hauek errespetatuz:



IV. ERANSKINA

JUSTIFIKAZIO-TXOSTENA
(jarduera bakoitzerako)

Jardueraren fitxa teknikoa:		
Jardueraren izena: _____		
Jardueraren lurralde-esparrua: Bertokoa <input type="checkbox"/> L. Historikoa <input type="checkbox"/> Autonomia E. <input type="checkbox"/>		
Pertsona-kopurua:	Garatuko deneko lekua/k:	Ordu-kop.:
Jardueraren egutegia: Lehen eguna _____ Azken eguna _____		
Erabiliko den hizkuntza Euskara <input type="checkbox"/> Gaztelera <input type="checkbox"/> Euskara/Gaztelera <input type="checkbox"/> Beste hizkuntzaren bat <input type="checkbox"/>		

Egindako jardueraren deskribapena:

Irizpideak / Ebaluaziorako adierazleak:

Lortutako helburuen balorazioa:

Erabilitako metodologia:

Ondorioak:

Sarrerak

Balantze ekonomikoa:

Gastuak

ANEXO I

DATOS GENERALES

<i>DATOS GENERALES DE LA ASOCIACION o FUNDACION</i>		
<i>Nombre de la Entidad solicitante:</i>		<i>Número de Socias</i>
<i>Domicilio Social</i>		
<i>Localidad</i>	<i>Territorio</i>	<i>Teléfono / Fax:</i>
<i>Inscripción en el Registro de Asociaciones/Fundaciones</i> N.º	<i>Fecha de Registro:</i>	<i>C.I.F.:</i>

<i>DATOS BANCARIOS DE LA ASOCIACION o FUNDACION ①</i>
<i>Entidad bancaria:</i>
<i>Dirección de la Sucursal bancaria:</i>
<i>N.º de cuenta:</i>

① NOTA: Es necesario que la Asociación o Fundación sea la titular de la cuenta bancaria.

<i>REPRESENTANTE LEGAL DE LA ASOCIACION o FUNDACION</i>	
<i>Nombre y Apellidos:</i>	
<i>Domicilio y Localidad:</i>	
<i>Teléfono:</i>	<i>D.N.I.:</i>

ANEXO II

PROYECTO DE ACTIVIDADES
(para cada actividad)

Denominación de la actividad:

Identificación de la actividad en el III PAPME

<i>Area</i>	<i>Objetivo</i>	<i>Acción</i>
-------------	-----------------	---------------

Programa de la actividad:

Objetivos:

1.- _____

2.- _____

3.- _____

4.- _____

5.- _____

Metodología:

Criterios / Indicadores de evaluación:

Personas destinatarias de la actividad: _____

N.º de personas previstas en la participación de la misma: _____

Ambito territorial de la actividad:

Local Territorio Histórico Comunidad Autónoma

Lugar/es de realización de la actividad: _____

Calendario de la actividad: N.º Horas: _____ Fecha de inicio: _____ Fecha de finalización: _____

La actividad se realizará en:

Euskera Castellano Euskera/Castellano Otra

PRESUPUESTO DE LA ACTIVIDAD

GASTOS:

Gastos de ponentes / profesorado:

Honorarios: _____

Alojamiento: _____

Transporte: _____

Otros: _____

Gastos de material:

Fotocopias: _____

Materiales didácticos (libros, audiovisuales ...): _____

Alquiler de materiales: _____

Otros materiales: _____

Publicidad:

Diseños y logotipos: _____

Carteles y folletos: _____

Anuncios prensa y radio: _____

Otros: _____

Alquiler de locales para las actividades: _____

Gastos de infraestructura:

Correos: _____

Teléfono y fax: _____

Otros: _____

Otros gastos: _____

TOTAL GASTOS _____

INGRESOS:

Aportación de la Asociación / Fundación: _____

Aportación de otras Entidades: _____

Aportación de las/os participantes: _____

Otras subvenciones: _____

**SUBVENCION QUE SE SOLICITA A EMAKUNDE PARA
ESTA ACTIVIDAD:** _____

TOTAL INGRESOS _____

ANEXO III

Características del logotipo de Emakunde / Instituto Vasco de la Mujer

La reproducción del logotipo de Emakunde / Instituto Vasco de la Mujer, para estos programas, se colocará en el soporte publicitario a difundir con la misma categoría que el logotipo de la asociación o entidad subvencionada, guardando las siguientes proporciones:



ANEXO IV

MEMORIA JUSTIFICATIVA
(por cada actividad)

<i>Ficha técnica de la actividad:</i>		
<i>Denominación de la actividad:</i> _____		
<i>Ambito Territorial de la actividad:</i> Local <input type="checkbox"/>	T. Histórico <input type="checkbox"/>	C. Autónoma <input type="checkbox"/>
<i>Nº de personas asistentes:</i>	<i>Lugar/es de realización:</i>	<i>N.º de horas:</i>
<i>Calendario de la actividad:</i> Fecha inicio _____ Fecha finalización _____		
<i>Lengua empleada:</i>	Euskera <input type="checkbox"/>	Castellano <input type="checkbox"/>
	Euskera / Castellano <input type="checkbox"/>	Otra <input type="checkbox"/>

Descripción de la actividad realizada:

Criterios / Indicadores de evaluación:

Valoración de los objetivos conseguidos:

Metodología empleada:

Conclusiones:

Balance económico:

Ingresos

Gastos